

# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektua ezagutzera eramateko, hainbat komunikazio kanal erabiliko ditugu, alde batetik diputazioaren eta udaletxearen diru-laguntzekin, hitzaldiak, kartelak eta irratian publizitatea igoko ditugu. Beste aldetik, gure kabuz beste errekurtsio batzuk erabiliko ditugu, hala nola, liburuxkak eta sare sozialak.

Komunikatu nahi dugun mezua, guk geuk sortuko dugu eta udalaren laguntzarekin zein baimenarekin gizartera iristea lortuko dugu. Irekiko dugun mezuan, gure hortz klinikaren informazioa agertuko da zehatz-mehatz ondoko hau: klinikaren kokapena, eskaintzen ditugun zerbitzuak eta tratamenduak, norentzat izan ahal den onuragarria, non apuntatu behar diren pazienteak, e.a.

Hasieran adierazi dugun moduan, hainbat komunikazio kanal izango ditugu informazioa zabaltzeko. Komunikazio kanal bakoitzean informazio desberdina zabalduko dugu, komunikazioa eraginkorra izan dadin:

- **Hitzaldiak:** ikastoletan, gizarte etxeetan zein erakunde publikoetan, hitzaldiak emango ditugu ondoko informazioa azaltzeko: eskuliatze teknika egokia nola aplikatzen den, aho-osasun egokia nola lortzen den, gaixotasun periodontalek eragin dezaketen arazoak organismoan jakinarazteko eta bizitzarako garrantzitsuak diren beste datu interesgarriak. Honekin batera, liburuxkak banatuko ditugu informazioa laburbilduz eta duden aurrean, informazioa eskuragarri egoteko.
- **Kartelak:** elkarteetan, medikuetan, gizarte etxeetan, garraio publikoetan, udaletxean, Lanbiden, beste hortz kliniketan, kartelak jarriko ditugu. Honen bidez, gure proiektua ezaguna egitea lortuko dugu.
- **Irratian:** irratia bidez, entzunle desberdinetara iritsiko gara. Modu horretan, diru kolaborazioa, boluntarioak eta gure proiektua zabaltzea lortuko dugu.
- **Sare sozialak:** gaur egun oso erabiliak direnez, hortz klinikako argazkiak igoko ditugu, ordutegiak, bideoak eta beste material audiobisuala.
- **Liburuxkak:** liburu hauetan, informazio garrantzitsuena bilduko dugu, momentu oro eskuragarri egoteko pertsona guztientzat. Liburuxka hauetan agertuko den informazioa, egokituta egongo da hartzailearen arabera: haurren kasuetan, esaldi laburrak eta hainbat argazki agertuko dira; helduen kasuan, informazioa luzeagoa izango da, bakoitzak arrazoiak emateko egin ahal izateko; azkenik, hirugarren adineko pertsonen kasuan, higiegi gomendioetan sakonduko dugu, oso garrantzitsua delako ohitura horrekin konstante jarraitzea.

